



◆ PELOTA

Gipuzkoako Txapelketako 3 eta 4garren postua dute jokoan gaur Alvarez eta Gorrotxategik



Unai Alvarez finalean izango da.

Azpeitiko Beobide eta Uzkudun izango dituzte kontrario. Gaur goizeko 11:00etan kiroldegian.

GIPUZKOAKO Txapelketa ari da bukaerara iristen eta asteburu honetan hernaniarrek partidu garrantzitsuak dituzte. Nagusien bigarren mailan, Unai Alvarezek eta Aitor Gorrotxategik jokatuko dute Gipuzkoako Txapelketako 3garren eta 4garren postua. Kontrario Azpeitiko Beobide eta Uzkudun izango dituzte. Partidua nahiko berdindua aurrikusten da, gogorra beraz, eta partiduan asmatzen duenak irabaziko du. Partidua kiroldegiko frontoian jokatuko da, gaur goizeko 11:00etan.

Segidan Gipuzkoako Txapelketako finala jokatuko dute Bidegoianeko bi bikotek: Olaetxea eta Huartek, Aspe eta Zapiainen kontra.

Beñat Aizpitarte eta Izadi Grajal, finalerdietako bueltako partidua
Gaur jokatuko den beste partidu garrantzitsua da Beñat Aizpitarte eta Izadi Grajalek jokatuko dutena. Pelotari hernaniarrek Gipuzkoako Txapelketako finalerdiko bueltako partidua jokatuko dute, Amezketako Ropon eta Legarretaren kontra. Gaur goizeko 11:00etan, Amezketan.

Aurreneko partidua 22 eta 21 galdu zuten hernaniarrek, eta finalera pasatzeko, ez diete kontrarioei 20 tanto baino gehiago egiten utzi behar gaurko partiduan. Joaneko partiduan ez zuten pelotarekin asmatu. Gaurkoan asmatzen badute izango dute finalerako aukerarik. ||

◆ EHNA

EHNA tramitatuko dute gaur

EHNA tramitatuko da gaur goizean Biteri kultur etxean. Beharrezkoak dira padroi agiria, 3 argazki eta 15 euro. Horrez gain, NBEei zuzendutako eskaera ofizial bat egiteko aukera izango da, euskal naziotasuna eskatzeko. Goizeko 11:00etatik 13:00etara, Biterin. ||

◆ SORGINTXULO

Sorgintxuloko auzo elkarteko urteko asanblea

Sorgintxulo auzo elkarteak urteko batzarra egingo du gaur. Hitz egingo dute balantze ekonomikoaz, elkartearen gaur egungo egoeraz eta zuzendaritza berria aukeratu dute, baita ere. Aurreneko konbokatoria izango da goizeko 11:30etan eta bigarrena 12:00etan. ||

◆ ANTZIOLA

Elkarte berriko bilera gaur

Antzolan soziedade berri bat egitekoak dira eta gaur egingo dute bilera bazkideekin, Estatutuak onartzeko. Bilera gaur goizeko 10:00etan da soziedadean bertan. ||

◆ ANTZERKIA

Haurrentzako antzerkia gaur

Marratxo izeneko antzerkia izango da gaur Biteri kultur etxean, goizeko 11:00etan hasita. ||

VII. Karabelgo krosa bihar goizean

Lasterketak goizeko 10:00etan hasiko dira.

BELKARA auzo elkarteak antolatuta, VII. kros herrikoa izango da bihar goizean. Lau kategoriatan banatu dute krosa: 1997 eta 1996 urteetan jaiotakoak, hauek goizeko 10:00etan hasiko dute lasterketa; 1995 eta 1994 urteetan jaiotakoak, 10:15etan hasiko dira; 1993 eta 1992 urteetan jaiotakoak, 10:30etan hasiko dira; eta 1991n eta aurreko urteetan jaiotakoak, 11:00etan hasiko dira. Aurreneko bi multzoek, gazteenek, 600 metro egin beharko dituzte korrika; 3garren multzokoak, 1.200 metroan ariko dira korrika; eta nagusienek 8.300 metroko lasterketa egin beharko dute.

Lasterketak Belkara auzo elkartearen egoitzaren aurrean hasiko dira. Aldagelak ere izango dira Zubipen. Maila guztietan, irabazleentzat sariak izango dira. ||

Errapia taldearen festa gaur Zikuñagan

Goizeko 11:00etatik aurrera Zikuzulon.

ERRAPIA arte tailerreko festa dago gaur egun guztian zehar Zikuñagako eskola zaharrean, Zikuzulon. Goizerako antolatu dute: 11:00etan, graffiti tailerra eta haurrentzako mural tailerra eta segidan izango da antzerkia haurrentzat.

Eguerdirako bazkaria prestatuko dute eta arratsaldean berriro ere ekingo diote: arratsaldeko 17:00etan, Roberto Patxeko saxojole eta Satxa Soriazu pianojolearen eskutik, jazz emanaldia entzuteko aukera izango da; arratsaldeko 18:00etan Aitzakiarik ez antzerkia eskainiko dute eta ondoren Gorka Setienen poesia emanaldia izango da. Arratsaldean, Adarragak txokolatada prestatuko du eta bideo eta diapo emanaldiak ere izango dira. Gauean *Nazka* taldearen kontzertuaz eta Rikiren musikaz gozatzeko aukera izango da. ||

DVD KLUB DIGITAL ZINEMA PARAISO

ELKANO KALEA 1 BEHERA EZK. paraiso@telefonica.net

Elkano Kalea 1 behe - ezk. HERNANI Tf 943 557 366

DVD eta Play Station 2-ren alokairua

Klasikoak eta nobedadeak
1200 pelikulatik gora aukeran zuretzako

Bideo joku eta akzesorioak salgai

MP3
PS2
GBA
PSP
game boy micro berria

GABONETAKO BEREZIA!!!!

Konsola edo PSP jokua erosteagatik
eraman zure UMD'entzat estutxe bat

DOHA!NIK!!!!



Ezkerretetik: Ainhoa, Maider eta Arantxa, Ansa ahizpak.

Euskal kanta ezagunekin kontzertua eskainiko dute Ansa ahizpek gaur Sandiusterrin

Hernaniko Musikak hilero antolatzen dituen kontzertuen barruan antolatu dute. Kantuen letrekin orriak banatuko dituzte abesteko.

ARANOKO ANSA ahizpek euskal kantu ezagunekin osatutako kontzertua eskainiko dute gaur arratsaldean Sandiusterrin. Kontzertua publikoak parte hartzeko modukoa izango da eta horretarako kantuen letrekin orriak banatuko dituzte. Gaurkoa Hernaniko Musika Eskolak hila-betero antolatzen dituen kontzertuen barruan antolatua da. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da, Sandiusterrin aretoan.

Gitarra, pianoa eta ahotsak
Ansa ahizpek kitarra, piano eta kantuekin euskal abesti herrikoiak eta berriagoak jo eta abestuko dituzte. Maider Ansarena da hiruretan ahots nagusia, Ainhoa kitarra jo eta koroak egingo ditu eta Arantxak aldiz, pianoa jo eta abestu egingo du. "Ahots nagusia da Maiderrena baina kantu asko bi ahotsetan abestuko ditugu, baita hiru ahotsetan ere" azaldu digu Ainhoa Ansak.

Errepertorioan dituzten kantu herrikoi zaharrak, Benito Lertxundirenak, Xabier Leterenak, Mikel Laboarenak eta Mikel Urdangarinenak dira, besteak beste. Abestiak, zaharrak ala berriak, denak ere nahiko ezagunak izango dira, jendeak kantatzeko moduko kontzertua egin nahi baitute.

"Kantuan aritu nahi bai, baina aukera gutxi"
Ainhoa Ansak azaldukoaren arabera Aranon egin zu-

Aranon hasi ziren emanaldi batekin eta ordutik ahoz aho, jendeak eskatuta egiten dituzte kontzertuak.

Jendeak kantatzeko gogoak bai baina aukera gutxi dituela dio Ainhoa Ansak.

ten emanaldi batean hasi ziren jendeak parte hartzeko moduko kontzertu hauekin: "ordutik ahoz aho lortutako kontzertuetan ibili gara, herri batean eta bestean". Azaldukoaren arabera, jendeak eskatuta ari dira emanaldiak egite "kantatzeko gogoak bai baina aritzeko aukera askorik ez baitute" dio.

Gero eta ekimen gehiago
Ainhoa Ansa Euskal Kantuzaleen Elkarte Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako koordinatzailea da eta aipatu du gaur egun kantuan aritzeko ekimenak berpizten ari direla: "Nafarroan esaterako Kantu

Txapelketaren harira mugimendu asko sortu da, bertan parte hartu dugunon poltsa moduko bat osatu dugu, ofiziala ez dena".

Horrez gain, gero eta herri gehiagotan ari dira hilean behineko zita egiten herrian baren kantu herrikoiak kantatzen aritzeko; Hernanin Kalez Kale Kantari ekimena sortu da eta beste herri askotan ere badago antzekorik.

Txikitatik kantuan

Ansa ahizpak txikitatik hasi ziren kantuan eta Nafarroako euskal kantu txapelketan hasi zuten ibilbidea. Arantxa Ansa gaur egun txalaparta, piano eta hizkuntza musikaleko irakaslea da eta J.M Beltran eta Joxan Goikoetxearekin jo izan du. Gaur egun Aukeran Dantza taldea eta Oreka TX taldeko musikaria da. Ainhoa Ansa ere Aukera taldean aritzen da bajua eta kitarra jotzen. Maider Ansak Nafarroako txapelketan eta bai Euskal Herrikoan hainbat aldiz irabazi du, taldeka nahiz bakarka, eta Tximeleta eta E.K.O taldeetan abesten du. ||

Kantatuko dituztenak

- | | |
|-----------------------------|-------------------------------|
| 1. Irria | 9. Topa dagigun |
| 2. Mendan gora | 10. Donostiyako |
| 3. Aita-semeak | 11. Jadanik |
| 4. Baldorba | 12. Udazkeneko San Martin |
| 5. Nafarroa | 13. Urrundik heldu naiz |
| 6. Aberriaren mugak | 14. Habanera |
| 7. Maitasunez hil | 15. Itsasoan urak haundi dire |
| 8. Donostiyako hiru damatxo | 16. Martxa baten lehen notak |

BHk salatu du txosten teknikoak eta espedienteak prest egon behar dutela Hirigintza Batzordea deitu aurretik

BILDU Hernanik Kronikara bidalitako ohar batean salatu nahi izan du "Hirigintza Batzordeko arduradun politikoaren arduragabekeria". BHk adierazi du ostiralera-ko Hirigintza Batzordea zegoela deituta eta bertan bi gai garrantzitsuren bueltan aritu zirela: Agustinetako aldaketa eta lokalak etxebizitza bihurtzeko araudiaz.

BHk azaldu du gai horien

inguruko informazioa eskatu zutela eta erantzuna izan dela txosten teknikoak egin gabe zeudela eta hurrengo egunerako prest egongo zirela. BHk dio txosten teknikoak, espedientearekin batean prest egon behar dutela batzordea deitu aurretik. Bildu Hernaniren galderara da: "nola aztertu behar dira gaiak informazio teknikoak ez badago?". ||

❖ LASARTE

Aritz Sound System gaur Lasarteko Gau Musikalean

Aritz Sound System disko jartzailea izango da gaur Lasarteko Gau Musikaleko musika aukeraketan. Lasarteko gau giroa aberasteko helburuarekin sortutako ekimena da Gau Musikala eta taberna ezberdinetan musika talde eta disko jartzaileak ariko dira, estilo ezberdinetan. Aritz Sound System gaueko 23:00etatik 05:00etara Lasarteko Artizar tabernan. ||

❖ ELKARTASUN DENDA

Elkartasun denda irekiko da gaur

Urtero Gabonetan egiten duten bezala, aurten ere Elkartasun denda jarri dute Kale Nagusian. Denda gaur irekiko dute goizez eta arratsalde. Garin tabernan zerrenda bat jarri dute bertan lagundu nahi dutenek laguntzeko. ||

❖ BERDINTASUNA

Sexismoari buruzko gizonentzako tailerra

Berdintasun Kontseiluak bultzatuta tailer bat jarriko dute martxan urtarilaren 10etik aurrera. Tailerra gizonentzako da eta sexismoari buruz hitz egingo da: estereotipoak, emakumearen zapalketa, gizonak nola dauden baldintzatuta, harremanetan sortzen diren arazoak, gizartearen sexismoak alor ezberdinetan duen eragina eta bortizkeria, besteak beste. Tailerra Ibon Arizabalaga de Mingok antolatu eta dinamizatzen du. Asteartero izango da arratsaldeko 19:00etatik 21:30etara. Izena ematea dohainik da eta abenduaren 23an bukatzen da epea. Izena emateko 628 775 954 telefonora deitu edo mezu bat bidali ibion@yahoo.es helbidera. ||

❖ KONTZERTUA

Txistu kontzertua bihar

Txistu kontzertua dago bihar, eguerdiko 13:00etan, Milagrosan. ||

Antziola-Motor
Salmenta eta tailer zerbitzua

Antziola auzoa 12

943 55 57 72

HERNANI

◆ BOLEIBOLA

Mutilek Sestaoko taldea hartuko dute gaur kiroldegian

Hernaniko taldea partidurik irabazi ezinda dabil azken aldian eta saiatuko dira gaur etxeko puntuei eusten, 18:00etan.

HERNANIKO mutilen taldeak Trueba-Sestao taldea hartuko du gaur kiroldegian, aspaldi lortu ezin izan duen garaipen gosez. Hernaniarrek ez dituzte partidu txarrak jokatu azkenekoak, Euskal Herriko txapelketan, baina, juxtu-juxtu galdu egin dituzte, eta puntu beharrean dira. Sestaotarrak atzetik dituzte sailkapenean eta partidu egokia izan liteke bi taldeen arteko aldea haunditzea.

Hernaniarrak zortzigarren

dijoaz momentu honetan, sei partidu galdu eta bi irabazita. Joko puntua baino gehiago

zorte pixka bat behar dute hala ere hernaniarrek, partidua aurrera ateratzeko. ||

Neskak Santo Tomasen

NESKEN taldeak ere partidua du gaur, baina, etxetik kanpo, Santo Tomas Lizetean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Hernaniarrak lehen postuan dijoaz Gipuzkoako txapelketan, jokatuak lau partiduak irabazita. Gaurko partiduak garrantzia haundia du, Santo Tomas partidu bakarria galduta baitago eta hernaniarrak asko urrutiratu litezke sailkapenean, gaur Donostian irabaztea lortu ezker. ||

◆ PELOTA

Iazko final bera, Kronika txapelketan

Finala eta 3-4 postuak jokatu dira, gaur, 12:00etan, Tilosetan.

NARBARTE eta Apezetxeak jokatu dute gaur Tilosetan, buruz buruko Kronika txapelketako finala. Iaz ere final bera izan zen eta aurten ere nor baino nor neurtuko dituzte indarrak bi goizuetarrek. Aurretik Legarreta eta Ruiz de Galarretak jokatu dituzte 3-4garren postuak. Pelota jaialdia, eguerdiko 12:00etan hasiko da, Tilosetan. Euria ari badu atzeratu egingo da.

Hamasei bikote

Buruz buruko Kronika txapelketak bigarren edizioa du aurten eta hamasei bikote aritu dira urriaz geroztik partiduak jokatzeko. Behin buruz buruko txapelketa bukatuta, deskantsu bat hartu eta ekingo zaio bi bitako Kronika pelota txapelketari. Izen ematearen berri emango du Hernaniko Kronikak, listak irekitzean. ||



Iazko bi finalistak. Aurten ere aurrez aurre izango dira.

◆ FUTBOLA

Aretxabaleta-Hernani bihar

Hernanik Aretxabaletan jokatu du bihar, azken aldiko bolada onari jarraipena emateko helburuarekin. Hernaniarrak sailkapeneko 14garren postuan dijoaz, Aretxabaleta baino zazpi puntu gutxiagorekin, eta 10garren postutik lau puntura.

Hernaniarrek gora egin dute nabarmen azken jardunaldietan eta badirudi kategoriari neurria hartzen ari direla. Azken zazpi jardunaldietan 14 puntu lortu dituzte hernaniarrek eta azken postutik 14garrenera igo dira. Gainera, 7 partidutatik bakarria galdu dute (liderraren etxean eta gerra emanda) eta horrek morala asko igo die txuri berdeei. Biharko partiduak progresio honi eusteko balio lezake eta Aretxabaletako zelai zailetik urrezko puntuak ekartzeko. Bihar, arratsaldeko 16:30etan, Aretxabaletako Ibarra zelaian. ||

◆ ERREMONTA

Ezkurra-Ion/Altuna I-Eizagirre gaur

Bi bitako Faustino Txapelketako partidua jokatu dute Gaur Galarretan Ezkurra eta Ionek, Altuna I eta Eizagirreraren kontra, arratsaldeko 16:00etan hasiko den jaialdian. Horrez gain, beste hiru partidu ere izango dira. ||

◆ ERRUGBIA

Kadete, jubenil eta nagusiak Landaren

Hiru partidu jokatu dira gaur Landaren. Nagusien bigarren taldeak jokatu du Gaztediko bigarren taldearen kontra 16:00etan eta jubenilek ere ordu berean jokatu dute Ordiziaren kontra. Kadeteek 15:00etan dute partidua Landaren. ||

◆ SASKIBALDIA

Hernanik Zarautzen du gaur finala

Hernani Neguko Kopako finala jokatzeko ari da Barcelo Bidaia Zarauzko taldearen kontra. Lehenengo partidua 51-46 irabazi zuten hernaniarrek eta gaur erabakiko da finala Zarautzen, 16:00etan. ||

◆ JUDO A

Judo erakustaldia gaur eta bihar kiroldegian

Judo erakustaldia izango da gaur kiroldegian, 6, 7, 8 eta 9 urteko umeekin, arratsaldeko 16:30etan. Igandean, Eskola kiroleko infantilak ere izango dira eta Hernaniko ikastetxeetako judokak ariko dira. ||

◆ ATLETISMOA

Eider Aldabe Gipuzkoako selekzioan

Eider Aldabe atleta hernaniarra aukeratu du Gipuzkoako Federazioak 17 urtez azpiko Iparralde eta Hegoaldeko selekzioen txapelketan parte hartzeko. 800 metrotako proban hartuko du parte Aldabek, Gipuzkoako Txapelketan oso ondo ibili zen distantzia berean. ||



Telemar ANTENAK
Itxastele, S.L.

TELEBISTA DIGITAL TERRESTRE BERRIA
jada Hernanin da.
Eskatu aurrekontua eta montajea!!

tdt

Telebista Digital Terrestrea

Espezialistak Td Digital Terrestrearen antenak jartzen eta egokitzen.
TB antena parabolikoen instalazioa, Kolektiboak eta bakarkakoak, Teledistribuzioa, Telefonía mugikorra, Mantenua

Telemar-Itxastele - Elkano 13 - Tel.: 943 55 33 99 - Fax: 943 33 00 60

2006ko Egutegia

URTARRILA

Prezioa: 3,00 €

ILBEHARA

Salgai ohiko tokietan

Kronika, Dobera, Sebas, Iruretagoiena, Leokadisti, Plaza Berri, Zinko-enea, Konde, Dorronsoro, Bikain, eta Antziola okindegian.

dobEra
EUSKARA ELKARTEA

Hernaniko kronika

☎ **TELEFONAK** 1 **Taxiak:** 943 550093 1 **Udaltzaingoa:** 943 333288 1 **DYA:** 943 464622
1 **Autobusak:** 943 556662 1 **Anbulatorioa:** 943 006666 1 **Jokalari anonimoak:** 943 331103
1 **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103 ☩ **FARMAZIAK** 1 *Egunez:* **Bilbao-Sagastiberri** Urbieta 7 -
943 552941 1 *Gauetz:* **Chucula** Kardaberaz 48 - 943 551793

GAUR Gaur eguraldi euritsua izango dugu. Ipar haizeak joko du eta horrek giroa hoztu egingo du. Temperatura maximoa 10°Cren bueltan ibiliko da.

BIHAR Igandean goizetik laino ugari izango dira eta euria ekarriko dute. Eguerditik aurrera zerua garbitzen joango da. Tenperaturak jaisten jarraituko du.



Herriko koruak parrokian. Joan den ostiralean gabonetako kanta kontzertua eman zuten herriko koruek Parrokian, Kantuz abesbatzak antolatuta. Parrokiko abesbatza, Elizatxo, Urumea, Inmaculada eta Langilekoak,

Doinu Zale musika Eskola, Hernani Musika eskola, Ozenki Abesbatza eta Kantuz abesbatzak eskaini zuten kontzertua: herri erdia kantuan aritu zen beraz, eta beste erdia entzuten, Parrokia gainezka baitzegoen. ||

 ZINEA BITERIN

Princesas eta Embrujada gaur

Biterin bi pelikula eskainiko dituzte gaur eta bihar, heldu eta haur-
rentzat: helduentzat Princesas pelikula izango da, arratsaldeko
19:30etan eta iluntzeko 22:30etan; eta gazteentzat Embrujada,
17:00etan. Bihar, 19:30etan izango da Princesas eta arratsaldeko
17:00etan Embrujadas. ■■

I. URTEURRENA

Jesus Artola Urrestarazu

JAUNA
2004ko abenduaren 19an hil zen Hernanin, 82 urte
zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa
hartuta

- Goian Bego-

Emaztea: Juana Narbarte; seme-alabak: Patxi Xabier eta Maria Angeles Belamendia, Jexux eta Karmele Torregarai, Juan Joxe eta Marijo Mujika; bilobak: Amalur, Izarne, Jon eta Gurutz; anai-arrebak: Encarna, Jose Mari eta Juanita; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehenagusuak eta qainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte! **BIHAR IGANDEA, goizeko 10:30etan**, Florida Auzoko **JOSE LANGILE DONEAREN** parroki elizan, egingo den Urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2.005eko abenduaren 17an

Helbidea: Sagastiya baserria

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA

Goreng mail.	Arebabaleta-Hernani	Ibarra	Bihar 16:30
Gaz.L.Nazional.	Santutxu-Hernani	Mallona	Bihar 17:30
Gaz.1. Maila	Beti Gazte-Hernani	Mastegi	Gaur 17:30
Kad. Ohor. Lig.	Hernani-Ordizia	Zubieta	Bihar 11:00
Kad.1.1. Maila	Hondarribia-Hernani	Ondartza	Bihar 11:30
Kad. F-8	Groseko-Hernani	Matigoxot	Gaur 09:45
Inf.1.1. Maila	Urnieta-Hernani	Urnieta	Gaur 10:00
Inf. bikilak	Lagun Onak-Hernani	Garmendide	Gaur 09:45

ERRUGBIA

Senior B	Hernani B-Gaztedi B	Landare	Gaur 16:00
Jub. Eus. Lig.	Hernani-Ordizia	Landare	Gaur 16:00
Kad. Eus. Lig.	Hernani-Ordizia	Landare	Gaur 15:00
Infantila (neguko	Ordizia-B.Bera-Hernani	Trebijano	Bihar 10:30
Aleбина (negu tor	Ordizia-B.Bera-Hernani	Trebijano	Bihar 10:30

WATERPOLOA

Gipuz.Liga	Izarraitz-Hernani A	Azpeitia	Gaur 14:00
Gipuz.Liga	Hernani A-Izarraitz	Kiroldedia	Bihar 13:00

SASKIBALOIA

PELOTA

Alzpitar

Alvarez-Gorrotxategi/Azpeltia (Beobide-Uzkudun) Kiroldedia Gaur 11:00

Senior mu

Senior neskak	Sto Tomas-Hernani	Sto Tomas	Gaur 17:00
Kadete mutilak	Hernani-Fortuna	Kiroldegia	Gaur 11:45
Kadete neskak	Inmaculada-Sto Tomas	Kiroldegia	Gaur 11:45
Infantil mutilak	Lizeotarrak-Inmaculada	Pio Baroja	Gaur 12:00

KIA

KIA MOTORS

CAPDEQUI-ASTIGARRAGA, S.L.
Kontzesionario Ofiziala
Donostia ibilbidea 76, Pol. Bidebitarte



ASTIGARRAGA
Tlf: 943 550 449

Enkarguzko lanak,
zilarra eta urrearekin.

joyeria artesanal

**Asun
Esna l**
Bitxigintza

Æ

Eguberri on!



**Larramendi 3
HERNANI 20120
Tlfa. 943 33 04 78**

- **LEKEITIO Emperatriz Zita** : 203,30 €
"programa vitalidad" tratamendu. 2 gau, M/P
- **NAFARNIO ARNEDILLO**: 284,62 €
"Programa Relax", 2 gau, M/P
- **KANTABRIA**: 2 gau
"Palacio Guevara": 87,85 € (A/D+afari 1)
"Hospederia Santillana": 80,40 € (M/P)
"La casona de Luis": 62,80 € (M/P)
- **ESKIATZERA**: egun 1
Candanchu: 39,00 € Gouret: 46,00 €
- **NAFARROARA asteburu pasa**:
Atxaspi (Lesaka): 96, 30 (A/D)
Donamariako Benta (Asteburu erromantikoa): 87,74 €
Irati Bailara (Besaro Hotela): 79,18 € (A/D + afari 1)
- **TALON HOTEL**: bancotel 50,00 €
eta kontsultarako beste aukera asko...